

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 14koa. Onespena ematea TicketBAI betebeharrari buruzko hainbat neurriei

Zerga iruzurra saihesteko tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauak xedatu zuen TicketBAI betebeharra bete behar zutela sozietateen gaineko zergaren zergadunek, jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek eta establezimendu iraunkorraren bidez errentak lortzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek.

Aipatutako foru arauaren arabera, nahitaezko sistema berri horren ezaugarrietako bat zergapekoei oro har zabaltzea izan behar da.

Aurreko hori gorabehera, 13/2021 Foru Arauak, salbuespen gisa, aukera ematen du zergaduna, pertsona fisikoa edo juridikoa, tasatutako kasu jakin batzuetan, salbuetsita geratzeko ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak fakturatzearan tresna teknologikoak erabiltzeko betebeharrak.

Ildo horretan, ulertzen da nahikoa justifikazio dagoela TicketBAI betebeharra betetzetik salbuetsita uzteko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun batzuk, hots, 2021eko abenduaren 31n jarduera ekonomiko batean ari zirenak eta erretiroa hartzeko adinetik hurbil daudenak, betiere baldintza jakin batzuk betetzen badituzte.

Bestalde, TicketBAI betebeharra pixkanaka-pixkanaka ezartzen ari da, eta zergadunak, egiten duten enpresa, lanbide edo arte jardueraren arabera, data desberdinetan sartzen ari dira betebeharrak horretan.

Horiek horrela, zergadun gehienak behartuta daude TicketBAI betebeharra betetzera, ezarpen egutegiaren arabera, 2022ko urriaren 1etik aurrera.

Bada, azken hilabeteetan gertatu diren ezohiko eta ezusteko gertaerak direla eta, komeni da data hori atzeratzea betebeharrak hori 2022ko urriaren 1erako bete behar duten zergapekoei, hain zuzen 2022ko abenduaren 1era arte.

Zergadunek atzerapen horren berri garaiz izateak justifikatzen du zerga premiazko araugintzako dekretu hau premiazkoa izatea.

Gainera, zerga premiazko araugintzako dekretu hau premiazkoa izatea justifikatuta dago, arautzen duen salbuespena ahalik eta lasterren indarrean jarri eta ondorioak izan behar dituelako, horren menpean dauden zergadunek aplikatu ahal izan dezaten.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inaktuaren txosten laburtua.

Horregatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, eta Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak foru aldundiari ematen dizkieten eskumenak baliatuz, presazko arrazoiak direla eta, hau:

XEDATZEN DUT

1. artikulua. TicketBAI betebeharra betetzetik salbuestea erretiroa hartzeko adinetik gertu dauden pertsonak

1. TicketBAI betebeharra betetzetik salbuetsita geratzen dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak diren pertsona fisikoak, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) 2021eko abenduaren 31n jarduera ekonomiko bat egiten aritzea.

b) Egun horretan 60 urte edo gehiago izatea.

c) Talde honetakoa ez izatea: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.c) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, elkargo bateko kide izateko betebeharra duen jarduera profesional batean jarduteagatik Administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izan behar dituzten pertsona fisikoak.

d) 2021ean ez izatea besteren konturako langilerik kontratatuta.

Ez da beharrezkoa izango d) letra honetan ezarritako baldintza betetzea, baldin eta 2021. urtean besteren konturako langileak aldi baterako kontratatu badira eta jarduera ekonomikoa garatzen duen zergadunaren gaixotasunagatik edo ezinbestezko kausagatik izan bada.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa honako hauei ere aplikatuko zaie: sozietate zibilei, nortasun juridikoa izan zein ez; jaso gabeko jaraunspenei; ondasun erkidegoei, eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen gainerako erakundeei, baldin eta zergak errenta egozpeneko araubidean ordaintzen badituzte eta bertan jasotako baldintzak betetzen badituzte. Ondorio horietarako, aurreko apartatuko b) eta c) letretan ezarritako baldintzak bazkide, jaraunse, erkide edo partaide guztiek bete beharko dituzte.

3. Artikulu honen aurreko apartatuetan aipatzen diren zergapekoek, TicketBAI betebeharra betetzetik salbuetsita egoteko artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta zerga premiazko araugintzako dekretu honen ondorioak sortzen diren egunean TicketBAI betebeharra betetzen ari badira, bai nahitaez, bai borondatez, betebeharrak hori betetzeari utzi ahal izango diote, eta ez dizkiote fakturak sistema horren bidez bidali beharko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari, eta ez da beharrezkoa izango horri buruzko berariazko jakinarazpenik egitea sailari.

2. artikulua. TicketBAI betebeharra betetzea eskatzeko data aldatzea

Egiten duten jarduera ekonomikoaren ondorioz TicketBAI betebeharra, zerga premiazko araugintzako dekretu honen ondorioak sortzen diren egunera arte, 2022ko urriaren 1etik aurrera betetzea eskatzen zitzaien zergapekoei betebeharrak hori 2022ko abenduaren 1etik aurrera betetzea eskatuko zaie.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Pertsona fisiko jakin batzuentzako aparteko kenkaria, TicketBAI betebeharra betetzetik salbuesteari lotua.

1. Xedapen iragankor honetan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea izango dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak diren pertsona fisikoek eta errenta egozpeneko araubideko erakundeei, baldin eta, bi kasuetan, jarduera ekonomikoak egiten badituzte eta, zerga premiazko araugintzako dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorriz, TicketBAI betebeharra betetzetik salbuetsita badaude, kasuan kasuko pertsonak erretiroa hartzeko adinetik hurbil daudelako eta, gainera, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Zerga premiazko araugintzako dekretu honen ondorioak sortzen diren egunean TicketBAI betebeharra betetzea borondatez aurreratu badute, nahitaezkoa zaien data baino gutxienez hilabete lehenagora, TicketBAI betebeharra garatzen duen arautegia onesten duen urriaren 5eko 48/2021 Foru Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean jasotako ezarpen egutegiaren

arabera; edo zerga premiazko araugintzako dekretu honen ondorioak sortzen diren egunean dagoeneko TicketBAI betebeharra betetzera behartuta badaude aipatutako ezarpen egutegiaren arabera eta betebeharrak hori betetzen hasiak badira; edo oraindik TicketBAI betebeharra zertan bete ez dutelarik, eta aurrerago azaldu bezala borondatez betebeharrak hori aurreratu ez dutelarik, 1. apartatu honen b) letran xedatutakoa betetzen duten inbertsioak edo gastuak egin edo konprometitu badituzte.

b) Zerga premiazko araugintzako dekretu honek ondorioak sortzen dituen eguna baino lehen, tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauan jasotako kenkariren bat aplikatzeko eskubidea ematen duten gastuak eta inbertsioak egin edo konprometitu izana.

2. Aurreko apartatuan jasotako betebeharrak betetzen badira, tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauan ezarritako kenkariak bertan ezarritako moduan eta baldintzetan aplikatuko dira, eta berezitasun hauekin:

a) Kenkariaren oinarria izango dira TicketBAI betebeharraren ezarpena sustatzeko edo TicketBAI betebeharra betetzea sustatzeko ezarritako gastu eta inbertsioak, zerga premiazko araugintzako dekretu honen ondorioak sortzen diren egunera arte egin edo konprometitutakoak, baldin eta kenkariak badira tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

b) Kenkariaren portzentajea ehuneko 100 izango da.

c) Ez da aplikatuko TicketBAI betebeharraren ezarpena sustatzeko kenkaria aplikatzeko ezarritako kenkariaren oinarriaren muga edo TicketBAI betebeharra betetzea sustatzeko kenkariaren oinarriarena.

Baldin zergapekoak dagoeneko aplikatu baditu tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauan TicketBAI betebeharraren ezarpena sustatzeko edo betebeharra betetzea sustatzeko ezarritako kenkariak zerga premiazko araugintzako dekretu honen ondorioak sortzen diren unera arte araututa dagoen moduan, autolikidazioa zuzendu ahal izango du kenkariak aplikatzeko xedapen iragankor honen 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoaren arabera, eta horregatik ez da inola ere berandutze interesik sortuko.

3. Xedapen iragankor honen aurreko apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta TicketBAI betebeharra borondatez betetzea erabakitzen duten zergapekoek eskubidea izango dute xedapen iragankor honen aurreko apartatuetan ezarritako kenkaria aplikatzeko, zerga premiazko araugintzako dekretu honen ondorioak sortzen diren egunera arte egindako gastuei eta inbertsioei dagokienez.

Zerga premiazko araugintzako dekretu honek ondorioak sortzen dituen egunaren hurrengotik hasi eta zerga premiazko araugintzako dekretu honen arabera TicketBAI betebeharra betetzetik salbuetsita egongo ez balira betebeharrak hori betetzea eskatu ahalko litzaiekeen egunera bitartean egindako gastuek eta inbertsioek eskubidea emango dute tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauan jasotako kenkariak aplikatzeko, zerga premiazko araugintzako dekretu hau betetzeko TicketBAI betebeharraren salbuespena izango ez balute aplikatzekoak izango litzaizkiekeen modu eta baldintza berberetan.

Baldin zergapekoak dagoeneko aplikatu baditu tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauan TicketBAI betebeharraren ezarpena sustatzeko edo betebeharra betetzea sustatzeko ezarritako kenkariak zerga premiazko araugintzako dekretu honen ondorioak sortzen diren unera arte araututa dagoen moduan, autolikidazioa zuzendu ahal izango du kenkariak aplikatzeko xedapen iragankor honen 3. apartatuan ezarritakoaren arabera, eta horregatik ez da inola ere berandutze interesik sortuko.

4. Xedapen iragankor honetan jasotako kenkaria aplikatzen duten zergapekoek ezingo dute aplikatu, gastu eta inbertsio berberei dagokienez, tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauan TicketBAI betebeharra betetzeko ezarritako kenkaririk.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean, eta 2022ko ekainaren 14an hasiko da ondorioak sortzen.

Bigarrena. Gaitzea.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta

Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA